

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

127/2020 Foru Agindua, otsailaren 25ekoa, onesten duena Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako laguntzen deialdia 2020ko ekitaldirako

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak, bere eskumenen eremuan, enplegua sortzea, prestakuntza, turismo sustapena eta merkataritza eta eskulangintza bultzatzea helburu duten ekintzak eta ekimenak gauzatzeko, hori dena Arabako Lurralde Historikoan jardura ekonomikoa pizteko.

Abenduaren 31ko 51/2013 Foru Dekretuaren bidez, Arabako eskulangintza sektorea arautu zen eta han xedatu zen dirulaguntzak eman ahalko zitzaizkiela eskulangileei edota eskulangintza enpresei euren egitura nahiz errentagarritasun, kudeaketa edo lehiakortasuneko baldintzak hobetzeko jardueretarako.

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak era integral eta dinamikoan ulertzen du eskulangintza, hots, sorkuntza, ekoizpena eta banaketa garatu behar dituen jardura gisa, bai tradiziozko bai gaur egungo ikuspegian, ekonomia, gizarte eta kultura balioak bateratuz. Gainera, sail horrek eta sektoreak berak konpromisoa dute haren ikusgaitasuna sustatzeko, profesionaltasun, prestigio eta kalitatezko ingurune batean kokatzeko, eta haren bideragarritasun ekonomikoa garatzeko.

Bestalde, bat etorri Arabako Foru Aldundiaren 2019-2023 legegintzaldiko plan estrategikoarekin, jardun estrategikoetako bat da eskulangintza sektoreko inbertsio eta salmentetarako laguntza ematea.

Arestiko guztiagatik, 51/2013 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplikatuz eta sailaren helburuak betetzeko, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak uste du komenigarria dela deia egitea Arabako eskulangintza sektorearen oraingo jarduerarako laguntzetarako. Programa hau ez da jardura bakartu bat, aitzitik ekonomia sustatzeko Arabako Lurralde Historikoaren politikaren esparruan kokatzen da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako laguntzen deialdi publikoa onestea 2020ko ekitaldirako, zeina foru agindu honi atxikitzen baitaia.

Bigarrena. Deialdiaren araubidea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak bere eskumenez emandako dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorretan (Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa) eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoan dago jasota.

Hirugarrena. Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuetako 30.5.02.36.02.479.00.03 aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira, 45.000,00 euroko zenbatekoz horniturik dagoela eta zorpekin erreferentzia 105-760/000 duela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beronen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2020 otsailaren 25a

Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren

Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

BELÉN GONZÁLEZ BENITO

ERANSKINA
ARABAKO ESKULANGINTZA SEKTOREAREN JARDUERARAKO
LAGUNTZEN 2020KO DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen helburua da Arabako eskulangintza sektoreari laguntzea eta haren ekoizpen jarduera bultzatzea, norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emanez.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuko partida honen kontura ordainduko dira: 30.5.02.36.02.479.00.03 (zorpekin erreferentzia: 105-760/000), 45.000,00 euroz hornitua.

Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahalko da, gehienez, aurrekontu transferentzia egokien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Eskulangileak, eskulangintzako enpresa eta elkarteak eta sektorea ordezkatzan duten gainerako erakundeak, baldin frogatzen badute Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela edo bertan dutela zerga egoitza edo sozietatearen egoitza eta, beranduenik 2020ko urtarrilaren 1az geroztik, Arabako Artisauen Erregistro Orokorrean izena emanda badaude edo egun horretan hasita badute bertan alta eskatzeko prozesua, eta eskaera horri ezezkoa eman ez bazaio laguntza lerro honetara eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

3.2. Ezingo dute dirulaguntzarik jaso Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak IV. tituluan aipatzen duen arau hausteren bat dela eta zehapena jaso dutenek eta/edo Foru Arau horretan xedatutako debekuen eragina dutenek. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan arau haustek egiten dituztenek ere ezingo dute dirulaguntzarik jaso.

3.3. Onuradunek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean eduki beharko dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

Enpresen kasuan, Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta ez badute, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.4. Beren-beregi baztertuko dira Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izenduen bat jaso duten eskatzaileak (esleitzeko garaian hitzarmena izenpetuta egon ala ez), baita laguntza lerro honetako lehenagoko deialdien bidez emandako dirulaguntzak ezarritako epean egin edo justifikatu ez dituztenak ere, salbu eta baldintza hori ez betetzeko arrazoiak nahikoa justifikatuta badaude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritiz.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahal izango dira zalantzarik gabe proiektuak martxan ipintzen edo garatzen laguntzen duten gastuak, beharrezkoak badira, ezarritako epearen barruan egiten badira eta ondoko jardun lerroen barruan sartzen badira:

1) Prestakuntza ikastaroetako matrikularen kostua, ikastaroa egiteko ezinbesteko material didaktikorako gastuak barne.

Diruz laguntzekoak izan daitezzen, zuzeneko eragina izan beharko dute onuradunaren eta haren langileen enpresa jardueraren hobekuntzan; inguruabar horrek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz behar adina justifikatuta egon beharko du.

2) Sustapenerako materialak argitaratu eta prestatzea, esaterako katalogoak, liburuxkak, txartel profesionalak edo antzekoak. Kanpoan utziko dira artisautzako produktuari edo lantegiari ez dagozkion publizitate edo sustapen material guztiak.

3) Web orriak ezartzea eta birdiseinatzea, jarduera lerro horretan diseinatzeko, sortzeko, itzultzeko eta domeinua kontratatzekeo hasierako gastuak eta lineako salmentara egokitzekoak ere sartuta. Mantentze gastuak eta gisakoak ez dira diruz laguntzekoak.

4) Eskulangintza azoketan edo antzeko lehiaketetan (arte galeriak, nazioarteko erakusketak...) parte hartzea, Arabako Lurralde Historikoaren barruan nahiz kanpoan, izena emateko, tokia alokatzeko, stand muntatzeko, materiala bidaltzeko eta standaren elektrizitate kontsumoko gastuak barne.

Atzerrian gertatzen diren azoken eta antzekoen kasuan, ostatuko gastuek ere jasoko dute dirulaguntza benetan gastatu eta frogatutako zenbatekoa kontuan hartuta. Haren zenbatekoa ezin da izan, kasu honetan, gaueko 80,00 eurotik gorakoa EB barruan eta 100,00 eurotik gorakoa ekintza EBren eremu geografikotik kanpo egiten bada eta azokak/lehiaketak dirauen egunetan baino ez (azoka hasten den egunaren aurreko gaua eta amaitzen den eguneko gaua barne). Halaber, kasu horretan, joan-etorriko gastuek ere jasoko dute dirulaguntza benetan gastatu eta frogatutako zenbatekoagatik, baina zenbatekoa ezingo da izan 300,00 eurotik gorakoa joan-etorrietarako.

Gainera, azoka nazionaletan, eta onuradun guztiak aurkeztutako eta artikulua honetan jasoriko gainerako gastu diruz lagungarri erantzun ondoren partidan aurrekontu krediturik geratzen bada, materiala nork bere ibilgailuan eramanez gero 0,29 euro/km ordainduko da joan-etorriagatik, eta bidesari gastuak ere onartuko dira. Materiala norberaren ibilgailuan bidaltzeagatik ordaina oroharreko prezioa da eta ez da zenbatzen dirulaguntza jaso dezakeen oinarrian; bidesariaren kostua, aldiz, haren barruan sartzen da.

5) Onuradunaren artisautza jarduera hobeto kudeatzeko eta negozioaren irudia edota jardueraren bideragarritasuna hobetzeko kanpo aholkularitza.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastua izateko, ezingo da izan enpresa jarduerari berari datxekion jarduera bat, hala nola kontabilitatea, administrazioarekiko gestioak...

6) Ikastunak edo artisau hasiberriak kontratatzekeo gastu globala (soldata eta gizarte segurantzaren kostua barne).

Dirulaguntza jaso ahal izateko, kontratazioak 6 hilabetekoa edo luzeagoa izan beharko du, arduraldia gutxienez eguneko lanaldi erdikoa, eta ezingo da izan eskulangile berak lehenago kontratatutako pertsona bat.

Ikastun edo artisau hasiberriak kontratua hutsaltzen badu bera kontratatu duen onuradunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, onuradun horrek, laguntza eskuratu ahal izateko, lanpostu hutsa bete beharko du, prestakuntzako beste kontratu bat eginez, gutxienez 6 hilabetetako.

Betiere, diruz laguntzeko gehieneko aldia kontratazioaren lehenengo 6 hilabeteak izango dira. Dagokion dirulaguntzaren sortzapena lan kontratua formalizatu eta aurkeztearekin eta dirulaguntzaren gai diren nominen kopiak aurkeztearekin gertatuko da. Ordainketa ez da egingo nomina horiek ordaindu izanaren frogagiriak, deialdi honetako 12.4 artikuluan helburu horrekin ageri diren gainontzeko dokumentuekin batera, aurkezten diren arte.

Baldin nominak eta ordainketaren frogagiriak aurkezteko epemugan agortu gabe badago kontratazio berriaren ondorioz jasotzeko eskubidea izango lukeen dirulaguntzaren zenbatekoa,

hurrengo deialdietan aurkeztu ahal izango da kontratazio hori, hain zuzen, aurrez diruz lagundu ez den eta ordaindu ez den zenbatekoa.

Betiere jarduketa behar adina justifikatuko da eta beharrezkoa izango da. Era berean, bat etorri beharko du, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, eskatzailearen eskulangintza jarduera gauzatzearekin.

Gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, besteak beste, kasu hauetakoren bati badagokie:

- Kanpo garraioaren elementuak.
- Altzariak.
- Web ostatatze edo hosting-a eta mantentze kostuak.
- Finantza gastuak.
- BEZa eta gainerako zeharkako zergak, salbu onuradunak konpentsatu edo berreskuratu ezin baditzake.
- Pertsona edo entitate eskatzaileari lotutako enpresa edo pertsonen bitartez egindako gastuak.
- Aldizkako gastuak eta/edo errepikatzen direnak nahiz kuota mota oro (Internetera sartzeko kuotak, elkarteei ordaindutako kuotak, aldizkako informazio buletinak...).
- Materialen gastuak lokala egokitzeko.
- Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe lotu ezin diren edota deialdi bakoitzean ezarritako epean egiten ez diren gastuak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak uste badu gastuen aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko gastuen batez besteko kostuaren aldean, diruz lagundu daitekeen oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

4.2. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

4.3. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ustez Arabako eskulangintza sektoreari laguntzen eta/edo haren ekoizpen jarduera bultzatzen edo lehiakortasuna hobetzen behar beste laguntzen ez duten jarduerak baleude, kanpoan utzi ahalko dira esleitu behar den dirulaguntza kalkulatzeko.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

5.1. Deialdi honetako onuradunek Arabako Lurralde Historikoan kokatu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren emaitzak.

Diruz lagungarriak izango dira:

- 2020. urtean hasitako jardueretatik, 2020ko abenduaren 11ra arte osorik gauzatzen direnak, egun hori barne.
- 2019ko azkeneko hiruhilekoan hasitako jardueretatik, onuradunak 2020an edo 2019ko azken hiruhilekoan ordaintzen dituenak, programa honetan bertan eta urte berean diruz lagundu ez diren proiektuetan, eta 2020ko abenduaren 11 arte (egun hori barne) egiten direnak, baldin eta ez badira diruz lagundu lehenagoko deialdietan.
- 2019ko azken hiruhilekoan egindako azoketan parte hartzea ere diruz lagundu ahal izango da, ordainketa lehenago egin den arren, aurrerakin moduan, eta betiere aurreko deialdietan ez badute dirulaguntzarik jaso.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Foru arau honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70eraino iritsiko dira (ikus Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua, 7.3. oinarri orokorra).

Foru Agindu honen babesean egindako eskaerei dagokien dirulaguntza kalkulatzeko deialdi honen eranskin gisa ageri diren gehieneko muga absolutuak kontuan hartu beharko dira.

6.2. Nolanahi ere, dirulaguntza gehienez 4.000,00 eurokoa izango da onuraduneko, baldin eta deialdi honen 3. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen baditu.

6.3. Eskatzailea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan onuradun atera bada, programa honen kostura onetsitako antzeko izaerako proiektuetan, dirulaguntzaren oinarria doituko da araudi honetan ezarritako gehieneko mugak ez gainditzeko.

6.4. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 300,00 euro.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio batzordea honela osatuta egongo da:

– Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia Plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza), Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauen deialdia indarrean sartzean hasiko da eta argitaratzen den egunetik 20 egun natural igarotakoan amaituko da.

8.3. Deialdi honetan arautzen diren laguntzetarako eskaerak egiteko erabili behar diren ereduak eskuragarri daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz) eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean. Behar bezala eta osorik beteta, sinatuta eta zigilatuta aurkeztu beharko dira, eta betiere agiri hauek erantsita eduki beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia, banako artisauen kasuan.

2. IFZren fotokopia, eskulangintza enpresen eta elkarten eta sektorea ordezkatzan duten gainerako erakundeen kasuan.

3. Gizarte Segurantzak egindako ziurtagiria, harekiko betebeharrak betetzen egunean dagoela frogatzekoa. Ziurtagiri horren ordeztu behar izango da organo kudeatzaileari emandako berariazko baimena, datuak emateko eskumena duten administrazioetatik datu horiek zuzenean jasotzekoa.

4. Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotearen ziurtagiria.

5. Eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak deskribatzeko memoria. Bertan datu hauek jarriko dira, besteak beste:

– Azoketan parte hartzeko jardueretarako: azoka bakoitzaren izena eta egingo den tokia eta data eta haietan parte hartuta lortu nahi diren helburuak.

– Sustapen materialak argitaratzeko jardueretarako, argitaratutako katalogoaren, liburu-xkaren edo sustapen materialaren ale bat aurkeztu beharko da.

– Prestakuntza jardueretarako: prestakuntza jardueraren izena eta edukia, zentro antolatzailea, lekua, egunak, iraupena eta helburuak.

6. Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformakoak edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, sinatu den kontratua). Azoketara joateko kasuan eskatzaileak egindako gastuaren kalkulak eta/edo aurreko ekitaldietan azoka bakoitzera joatearen kostuaren frogagiria onartuko dira aurrekontu gisa dirulaguntzak kalkulatzeko.

7. Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzaten hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000,00 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onetsi zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

8. Langile berriak kontratatuzko planteamendua, hala badagokio.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak

9.1. Irizpide objektibo hauek erabiliko dira, azkenean onartzen diren eskaeretatik dirulaguntza zeintzuei emango zaien erabakitzeke:

1) Enpresaren lehiakortasuna hobetzea.

Irizpide hau ebaluatzerakoan kontuan hartuko dira honako emaitza hauek ahalbidetzen dituzten jarduketak: produktuaren berrikuntza; bereizketa; kalitatea areagotzea eta enpresaren kudeaketan eta IKTen erabileran hobekuntzak egitea; irudia, marka, komunikazioa eta bezeroentzako arreta hobetzea; merkatuak handitzea; Arabako eskulangintza beste merkatu batzuetan hedatzea...

Alde handirik ez duten espediente guztiei puntu berak emango zaizkie. Haiei 6 puntu osagarri gehituko zaizkie beste merkatu batzuen (esaterako, azokak) irekiera dakarren jarduera bakoitzeko eta beste 6 puntu osagarri irudia, marka eta bezeroari eskainitako komunikazioa hobetzen duen jarduerako, alegia, besteak beste, web orria sortu, berri edo hobetzeagatik eta sustapen materiala egiteagatik. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, espedienteren batek besteetatik nabarmentzen duen alderdiren edo irizpideren bat balu, aparteko 5 puntu jaso ahal izango litzuke alderdi edo irizpide horrengatik, baldin eta alderdi hori dela-eta lortutako puntuazioak gainditzen ez badu 9.1 artikulua honen bukaeran zehaztutako gehienekoa.

2) Enpresaren konpromisoa artisautzako jarduerari eusteko.

Irizpide hau ebaluatzerakoan kontuan hartuko dira honako inguruabar hauek: enpresa berriak abian jartzea, bokazio berriak sustatzea, galtzeko zorian edo oso murriztuta dauden eskulangintzako jarduerari eustea, jardueran lanean emandako urteak, etengabeko prestakuntza...

Puntu guztiak emango zaizkie beren memorietan prestakuntza edo kontratazioa jasotzen duten eskaerei. Bekak ere prestakuntza izango dira. Gainerakoei 15 puntu emango zaizkie.

3) Justifikatutako ehunekoa (zenbateko onartua), eskatzaileak onuradun gertatu zen laguntza lerro honen azken deialdian esleitutako zenbatekoari dagokionez.

Irizpide hori honela ebaluatuko da:

- Ehuneko 90 edo gehiagoko justifikazioa, 15 puntu.
- Ehuneko 60 edo gehiagoko eta ehuneko 90etik beherako justifikazioa, 10 puntu.
- Hirugarrena laguntza lerro honen onuradun gertatzen den lehen aldia, 10 puntu.
- Ehuneko 60tik beherako justifikazioa, 0 puntu.

4) Laguntza eskaeraren xede diren ekintzak azaltzeko memoriaren nahiz eskaeraren beraren argitasuna, xehetasuna eta askitasuna eta bertan eta lehen unetik hura aztertzeko behar den dokumentazio osoa sartzea.

Irizpide hori honela ebaluatuko da:

- Eskabide osoa eta memoria xehea, 15 puntu.
- Lehen unean osatu gabeko eskabidea eta memoria xehea, 10 puntu.
- Eskaera osoa baina xehetasun urriko memoria, 5 puntu.
- Xehetasun urriko memoria duen eta lehen unean osatu gabe dagoen eskabidea, 0 puntu.

5) Proiektuaren eraginaren zenbaterainokoa.

Irizpide hau baloratzeko, kontuan hartuko dira proiektuari lotutako lanaldi osoko lanpostuak sortu diren eta fakturazioaren gehikuntza.

Bost (5) puntu emango dira sortutako lanpostuko. Proiektuari lotuta fakturazioak gora eginez gero, 3 puntu emango zaizkie web orriaren sorkuntza, berritzea edo hobetzea dakarten eskaerei eta zazpi puntu osagarri ekipo informatikoak edo softwarea erostea jasotzen dutenei. Alderdi edo irizpide hori dela-eta lortu ahal den gehieneko puntuazioa ez da inoiz izango deialdiaren 9.1 artikuluan 5. irizpiderako (hurrengo paragrafoa) zehaztutako 10 puntuak baino gehiago.

Gainera, beste 15 puntu emango zaizkie enplegua sortzea dakarten eskaerei. Dena den, dirulaguntza baliogabetuko da baldin eta enplegua ez bada sortzen 4.1. artikularen 6) apartatuan ezarri bezala, eta pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza esleitzeko.

Irizpide horiek honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 32 puntu gehienez, eta 8 puntu gehiago lortu ahalko dira jarduera lurralde nazionaletik kanpo gertatzen bada.
- 2. irizpidea: 20 puntu arte.
- 3. irizpidea: 15 puntu arte.
- 4. irizpidea: 15 puntu arte.
- 5. irizpidea: 10 puntu arte.

9.2. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

10.1. Balorazio batzordeak aztertu egingo ditu jasotako eskaerak, eta dokumentazioa osorik ez badago edo nahasteko bidea ematen badu, interesdunari errekerimendua egingo dio akatsak konpondu edo behar diren argibideak eman ditzan hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jakinarazten denetik hasita, eta ohartaraziko dio hori egin ezean eskaera bertan behera utzitzat joko dela.

10.2. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

10.3. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoaren arabera jardungo da.

10.4. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beronen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedutakoarekin bat etorritz, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

11.1. Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, ekitaldi publiko nahiz pribatuak, aurkezpen, amaiera ekitaldi eta antzekoak aldeztatik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herri-tarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

12. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Behin dirulaguntza emango dela onetsi eta gero, onuradunak justifikatu beharreko aurrerakina eskatu ahalko du; hain zuzen ere, dirulaguntzaren ehuneko 40 artekoa, baldin eta eskatu duen ehunekoaren besteko edo hori baino gehiagoko aurrekontu diruz lagungarriaren zenbatekoa egikaritu badu. Eskaera hori egiteko, onuradunak 20 egun naturaleko epea izango du dirulaguntza eman zaiola jakinarazi zaionetik, eta eskaerarekin batera egindako gastua egiaztatzen duten fakturen edo frogagiri baliokideen jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuk aurkeztu beharko ditu.

12.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza edo, hala badagokio, dirulaguntzaren gainerako ehuneko ordaintzeko betebeharra onartzeko, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2020ko abenduaren 11 baino lehen (egun hori barne):

– Dirulaguntza eskaeraren xede diren jardueretatik azkenean egin direnak, balizko desbideratzeak eta haietarako zioak azaltzeko memoria.

– Fakturak eta froga balio bereko gainerako agiriak, jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak.

– Enplegu bulegoan erregistratutako lan kontratuaren kopia (kontratazio berrietarako soilik) eta, horri erantsita, kontraturiko pertsonaren NANaren kopia, Gizarte Segurantzako alta agiriaren kopia eta lehenengo hilabete osoko nomina.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Hiru eskaintzak eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (bakar-bakarrik partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak ezarritako 15.000,00 euroko mugara heldu edo hortik gorakoak izan badira).

Profesionalek igorritako fakturei dagokienez, onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza edo, hala badagokio, dirulaguntzaren gainerako ehunekoa ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatutzat eman dezan, aldeztu aurretik onuradunak, 2021eko maiatzaren 28ra arteko epean (egun hori barne), Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan fakturen ordainketaren frogagiriak aurkeztu beharko ditu, eta horien zenbatekoa, gutxienez, dirulaguntza jaso dezakeen onetsitako oinarriaren bestekoa edo gehiagokoa izan beharko da. Formatu hauetako edozein erabili ahalko du horretarako:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, datu hauek zehazten dituenak: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea, eta izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta edo zigilua jarrita, datu hauek zehaztuta: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Baldin eta kontratazio berri bat egon bada, nominen ordainagiriez gain, beharrezkoa izango da hauexek aurkeztea: dirulaguntzaren xede diren nomina guztien kopia; langileen zerrenda izenduna edo haren kopia nahiz eta konpultsarik ez izan, ordaindu izana erakusten duen banku orria finantza erakundeak sinatuta erantsita, eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen likidazioen ordainagiria edo haren kopia nahiz eta konpultsarik ez izan.

– Diruz lagundutako jarduera zehazten duten erosketak edo zerbitzuen ordainagiriak edo tiketak, bidezko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

12.5. Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, baina fotokopia konpultsatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo haren kontrabalioa atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

12.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

12.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

12.8. Hasieran onetsitako aurrekontu diruz lagungarriaren mugarekin, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Betiere desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuen oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten direnean, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

12.9. Aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak, dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko aurkeztu behar direnak zein hura kobratzeko aurkeztu behar direnak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko dira (Probintzia Plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz) edo bestela, itundutako udalen erregistro orokorretan. Dena dela, bete egin beharko da administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa.

12.10. Aplikatu bada 6.2 paragrafoan ezarritako dirulaguntza mugetako edozein, onargarria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak aldeztu txostena eginik, diruz laguntzeko den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxienezko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

12.11. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztu beharrezko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12.12. Jasotako kopuruak itzuli beharko dira eta dagokion berandutze interesa eskatuko da, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, kasu hauetan:

a) Dirulaguntza eskuratu izana ezarritako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza ezin ematea eragin izango zuketeko baldintzak ezkutatu.

b) Ez betetzea, osorik edo partez, dirulaguntza funtsatu zuen xedea, jarduera edo proiektua, edo ez jokatzeko dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Justifikatu beharra ez betetzea edo behar beste ez justifikatzea, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 28. artikuluan eta, kasuan kasu, dirulaguntza erregulatzeko arauetan xedatutakoaren arabera.

12.13. Onuradunek gastuen justifikazioak aurkeztu ondoren, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak, diruz lagundutako jarduketak benetan egin direla egiaztatzeko. Bisiten kopurua eskura dauden baliabideen arabera izango da.

12.14. Zenbait kasutan lehenengo emanaldia egin ahalko da, justifikatu beharrezko aurrerakin gisa. Hala ere, ez da ezarri emandako funtsak bermatzeko inolako araubiderik.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso dituzketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

14. artikulua. Garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua gaitzen da Foru Agindu hau zuzen garatu, aplikatu eta interpretatzeko behar den erabaki oro hartzeko, eta datuen benetakotasuna eta deialdi honetan araututakoa betetzeko eskatu eta egiaztatu ahal izateko ekintzak burutu ahalko ditu. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jardueren inguruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere emango dute.

15. artikulua. Errekurtsoak

Deialdi honi eta deialdiaren ondorio diren administrazio egintzei Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako egoeretan eta eran egin ahal izango zaie aurka.

16. artikulua. Azken klausula

Foru Agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta dirulaguntzen arloan Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauak, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta dirulaguntzei buruzko ondorengo xedapen guztiek dirulaguntzen arloan arautzen dituzten xedapenen mendean ere.

ERANSKINA

JARDUERA	GEHIENEO DIRULAGUNTZA (EURO)
Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea	
Matrikularen kostua eta material didaktikoa	1.000,00
Web orriak ezartzeko eta eguneratzeko kostua	2.000,00
Sustapen materialak lantzea eta editatzea	2.000,00
Azoketan parte hartzea Participación en ferias	2.000,00
Ikastun edo artisau hasiberriak kontratatzea	
Ikastun edo artisau hasiberriak kontratatzeko gastu osoa, baldin eta sei hilabete edo gehiagorako hartzen badira	1.500,00
Kanpoko aholkularitzaren kontratatzea	
Kontratazio kostua	2.000,00